

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

113/2020 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa, hasierako onespena ematen diona El Risco Ureztaizaileen Erkidegoak sustatutako proiektuaren interes publikoaren adierazpenaren espedienteari. Proiektu horren bidez, PVCzko hiru tarte burdinurtuzko hodiekin ordeztuko dira, Lapuebla de Labarcako udalerriko lurzoru urbanizaezinetik igarotzen den trazadura dutenak

El Risco Ureztaizaileen Erkidegoak Lapuebla de Labarcako Udalarari udal lizentzia eskatu dio PVCko tarteak 400 mm-ko diametroko eta C30 eta 150 mm presioko eta C40 presioko burdinurtuzko hodiekin ordezteko proiekturako. Lehendik dagoen hodiak maiz hausturak eragiten ditu bere antzinasunagatik eta jasaten duen presioagatik; jarduketa puntualetan tarteak ordeztu dira, aurreko hausturengatik eta errepideak egiteagatik. Hiru zati daude egiteke: 400 mm-ko bi hodi, 750 metro luzerakoak; eta 150 mm-ko hodi bat, 175 metro luzerakoa.

Lapuebla de Labarcako Udalak espedientea bidali eta proiektuaren interes publikoaren adierazpena izapidetzeko eskatu du, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen barruan dago ikus-onetsitako proiektu teknikoa, hiru tarteetan egin beharreko jarduketaren deskribapen xehatuarekin. Era berean, udal arkitektoak egindako txostena eranstean da, non jasotzen baita proiektuak honako lursail hauei eragiten diela: 1007, 1008, 1002, 1001, 717, 1231, 675 eta 567, guztiak Lapuebla de Labarcako 1. poligonokoak; trazaduraren gainarako zatiak udal bideak jarraitzen ditu. Obrek eragindako lursailak lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta daude eta honela kalifikatuta: 10. Zona – Bide komunikazioen babes zona, A-3216 errepidea; 4. Zona – Ur ibilguten babes zona, Aguasalada erreka; 2. Zona – Paisaiaren babes zona; eta 8. Zona – Nekazaritzako balio bereziko babes zona. Udal txostenean jasotzen denez, indarrean dauden arau subsidiarioen 200. artikulua arabera, trazadura igarotzen den zonetan, 2 zona - paisaiaren babes zonan izan ezik, baimenduta dago onura publikoko eta interes sozialeko azpiegitura erabiltzea. Horri dagokionez, aditzera ematen da proiektua kontserbazio eta mantentze obra dela, ureztatze azpiegituren sare bateko materiala ordezteko. Sare hori antolamenduak finkatzen du, eta, neurri handi batean, nekazaritza bideetatik doa eta ez dio eragiten paisaiaren aldetik babestutako espazioaren babesari. Hori dela eta, ondorioztatzen da obra hirigintza araudiaren araberkoa dela.

Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari helarazi zaie, proiektua espazio babestuen araudiarekin bateragarria den adieraz dezaten eta ingurumen inpaktuaren ebaluazioa egin dezaten, hurrenez hurren. Horren emaitza espedientearen jasoko da, dagozkion ondorioetarako.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legeriak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz

ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeiei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren”

Bigarrena. Aztertutako kasuan, hasierako onespena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onspena ematea El Risco Ureztatzaileen Erkidegoak sustatutako proiektuaren interes publikoaren adierazpenaren espedienteari. Proiektu horren bidez, PVCzko hiru tarte burdinurtuzko hodiekin ordeztuko dira, Lapuebla de Labarcako udalerriko lurzoru urbanizaezinetik igarotzen den trazadura dutenak.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeiei egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesa dutenek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO